

BERDINKETA
GIZON ETA EMAKUMEEN BERDINTASUNERAKO
II. PLANA
ORTUELLAN
2014- 2019



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

2014ko azaroa

1. Aurkezpena
2. Plana egiteko metodologia
3. Planaren egitura
4. Dokumentuaren egitura
5. Eskemak
6. Berdintasunaren aldeko gobernamentua hobetzeko neurriak
7. I. ARDATZA: Balioen aldaketa eta emakumeen ahalduzko pertsonala, kolektiboa eta soziala
8. II. ARDATZA: Gizarte antolaketa erantzunkidea:
9. III. ardatza: Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea
10. Ebaluazioa
11. 2014-2015 aldirako plan eragilea

A U R K I B I D E A



A U R K E Z P E N A

Gure udalerrian emakumeon eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko egitarau eta ekintzak sustatzen hainbat urte eman eta gero, “bide-orri berria” lantzearen beharraz jabetu ginen. Eusko Jaurlaritzak aurreikusitako esku-hartze ildoak eta zuzenbideei egokitutako tresna berria da, proposatutako helburuak eta ekintzak gauzatzea bermatuko diguna.

“Ortuellako Ekintza Positiboen 1. Plana (2002 – 2007)” berrikusteko zenbait saiakeraren ostean, Emakunderen - Emakumearen Euskal Institutua- laguntzaz egiteko aukera ikusi genuen. Mementorik egokiena ez bazen ere, garrantzi handiko beste egitasmo batzuk garatzen ari baikin, egitekoari ekin genion. Emakunderen aldetik jasotako material eta giza laguntza paregabeari esker, egungo egoeraren gaineko diagnostikoa egin ahal izan dugu, aurreko plana ebaluatu eta datozen bost urteotarako plan berri bat eskuratu.

Lan hori guztia “Berdinketa, Ortuellako emakumeon eta gizonen berdintasunerako II. Plana (2014 -2019)” dokumentuan jasoa izan da, etorkizunerantz begiratzeko aukera emango diguna esku artean eginkizun zehatzak izanik.

Dokumentu hau ez zen posible izango udalerriko elkarteen ordezkari batzuen, udaleko teknikarien eta gure udalbatzaren hautetsien parte-hartzea izan barik. Euren laguntza ezinbestekoa izan da lan honetan, gure udalerriko errealitatera gerturatzea ahalbideratu digu eta. Hauei guztiei euren parte-hartzea eskertu eta, nola ez, Ortzadar enpresari bere lana eta dedikazioa, kontratatutako zerbitzutik haratago joan dena.

Alkatea – presidentea.

Saulo Nebreda Trebejo jn.

“AXOLAGABEKERIA GAINDITU, BIZITZEKO BERDINTASUNA, ELKARBIZITZARAKO DESBERDINTASUNA” (Aroa Salceda)



PLANA EGITEKO METODOLOGIA

Metodologia mistoa erabili da, Ortuella udalerrriaren ezaugarri berezietara egokitzen den Berdintasunerako II. Plana izateko, eta, bertan, teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak konbinatu dira; horretarako, talde sustatzailearen inplikazioa eta Udal osoarena funtsezkoa izan da.

Plana egiteko, *Ekintza positiboko I. udal berdintasun planaren* ebaluazio kualitatiboa, diagnostikoa eta talde sustatzailearekiko koordinazioa izan dira abiapuntu.

Ondorioen gainean prozesu irekia diseinatu da, eta etapa hauetan gauzatu da.

I. etapa. II. Planaren *matrize-egitura* prestatzea. Matrize-egitura horretan, *EAEko emakume eta gizonen berdintasunerako VI. Planak* ezartzen dituen lan ildoak integratzen dira eta II. Planaren neurri, ardatz, programa eta estrategiak jasotzen dira.

II. etapa. *Lehenengo dokumentua* egitea. Lehenengo dokumentua egiteko, *matrize-egiturari* talde politikoaren, Udaleko teknikari taldearen eta udalerrian lan egiten duten beste erakunde batzuetako langile teknikoaren, udaleko elkarte egituraren ordezkarien eta, oro har, herritarren ekarpenak gehitu zaizkio. Metodologikoki, ekarpenak hiru lan mahaitan eskuratu dira, bakoitza ikuspuntu batekoa: politikoa, teknikoa eta komunitarioa.

III. etapa. *Bigarren dokumentua* egitea. Dokumentu honetan, talde sustatzailearen ekarpenak sartu dira.

IV. etapa. *Hirugarren dokumentua* egitea. Zirriborro hau aurreko etapetan parte hartu duten pertsonak *Bigarren dokumentu* irekian eginiko ekarpenei eta gizarte eragileen eta, oro har, herritarren ekarpenei buruzko hausnarketa egin ondoren egin zen.

V. etapa. *Behin betiko dokumentua* egiteko, *Emakundek Hirugarren dokumentua* berrikusi du.

Zehazki, Ortuellako emakume eta gizonen berdintasunaren II. Plana egiten parte hartu duten erakunde eta pertsonak honako hauek izan dira.

Pertsona kopurua

PLANA EGITEKO METODOLOGIA	EKARPEN KOMUNITARIOAK	<i>Alboan – Meatzaldea "Mendialde" etxeakoandreak Harri Ama Beren kabuz:</i>	9 (9 emakume eta 0 gizon)
	MAHAI TEKNIKOA	Udalaren mahai teknikoa EJ Hezkuntza	13 (8 emakume eta 5 gizon)
	MAHAI POLITIKOA	Udalaren mahai politikoa	9 (4 emakume eta 5 gizon)
		GUZTIRA	31 (21 emakume eta 10 gizon)

**PLANAREN
EGITURA
PLAN**

Ortuellako emakume eta gizonen berdintasunaren II. Planak gobernarendua hobetzeko neurrien proposamenarekin eta EAEko Berdintasunerako VI. Planaren ardatzekin bat egiten du. Proposamen hori honela egituratuta geratzen da: bost neurri, hiru ardatz eta bost programa, EAE osatzen duten erakunde publikoekin batera noranzko berean joateko.

Oinarri honen gainean eta Ortuella udalerraren eta udalaren errealitateari buruzko diagnostikoa eta ekarpenak kontuan hartuta, estrategia eta ekintzetan oinarritutako egitura antolatzen da.

Bai egiturarako, bai edukirako, oso kontuan izan da amaierako dokumentuak plana aurrera eraman behar duten pertsona guztien eguneroko lana ahalik eta gehien erraztea. Hori horrela, II. Planaren indarraldiari, egituren dibisio kopuruari, ekintza zehatzak kokatzeari, erabilitako terminologiari eta izendapen bereziei buruzko erabakiak hartu dira.

Ekintzak gauzatzeko, erakunde arduradunak zein izango diren eta zein denboratan gauzatuko diren zehazten da, urtetan adierazita. Indarraldia dela eta, berdintasunaren aldeko gobernamenturako beharrezko diren ekintzen ezarpen errealistarekin bat dator.

Ekintzen ebaluazioa dela eta, horiek ebaluatzeko adierazleak ezartzen dira. Hainbat urtetarako plana denez, ebaluazioak urterik urte egingo dira, etenik gabe. Horrek esan nahi du 2019. urteko ebaluazioa, aldi berean, Ortuellako emakume eta gizonen berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa izango dela, indarraldia amaitzean.

Amaierako dokumentua jarraitua da; beraz, proposatutako helburu eta ekintzetarako udal arloen mailakako inplikazioa eskatzen du.

**DOKUMENTUAREN
EGITURA
DOCUMENTO**

ESKEMAK

Helburua da plana osatzen duten elementuak integratzea. Horretarako, modu eskematikoan jasotzen dira:

- gobernamendua hobetzeko neurrien eta beren programekin esku hartzeko ardatzen arteko erlazioa
- elementuen arteko erlazioa
- plana ezartzeko erantzunkidetasuneko erlazioak

NEURRIAK

Hasierako deskribapen estrategikoak, terminologia bereziak eta bost neurrik osatzen dute. Horietako bakoitza estrategia, ekintza, ebaluazio adierazle, arduradun eta ezarpenerako eta ebaluaziorako kronogrametan egituratzen da.

ESKU HARTZEKO ARDATZAK

3 ardatz ditu. Horietako bakoitza honela egituratzen da: ardatzaren deskribapen estrategikoan eta terminologia berezian, programetan, estrategietan, ekintzetan, ebaluazio adierazleetan, arduradunetan eta ezarpen eta ebaluazio kronogrametan.

EBALUAZIOA

Helburua da ekintzen etengabeko ebaluazio arduratsua egiteko bidea ematea: ikuspuntu kuantitatibotik, adierazleak kontuan hartuta; ikuspuntu kualitatibotik, ekintzen orientazio printzipioei jarraituta (neurriak eta programak eta horien estrategiak).

Hori horrela, jarduera bat da ekintza bati edo gehiagori erantzuteko modu zehatza.

BI URTEKO PLAN ERAGILEA 2014–2015



EAE-KO VI. PLANA

ORTUELLAKO II. PLANA

<p>Berdintasunaren aldeko gobernamentua hobetzeko neurriak</p>	<p>1. NEURRIA: Udalaz gaindiko eta sailen arteko koordinazioan genero ikuspegia sartzea.</p> <p>2. NEURRIA: Prestakuntza jardueretan genero ikuspegia sartzea.</p> <p>3. NEURRIA: Sail barruko jardueran genero ikuspegia sartzea</p> <p>4. NEURRIA: Estatistika eta azterlanetan genero ikuspegia sartzea</p> <p>5. NEURRIA: Emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua handitzea.</p>
<p>I. ardatza: Balioen aldaketa eta emakumeen ahalduntze pertsonala, kolektiboa eta soziala</p>	<p>1. PROGRAMA: Balioak aldatzea.</p> <p>2. PROGRAMA: Emakumeen ahalduntzea</p>
<p>II. ardatza: Gizarte antolaketa erantzunkidea:</p>	<p>3. PROGRAMA: Gizarte antolaketa erantzunkidea:</p>
<p>III. ardatza: Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea</p>	<p>4. PROGRAMA: Sentsibilizazioa eta prebentzioa</p> <p>5. PROGRAMA: Hautematea eta arreta</p>

BERDINTASUNERAKO II. PLANA: NEURRIAK, ARDATZAK, PROGRAMAK ETA ESTRATEGIAK

A. BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNAMENDUA HOBETZEKO NEURRIAK

G1 neurria: Udalaz gaindiko eta sailen arteko koordinazioan genero ikuspegia sartzea.

G2 neurria: Prestakuntza jardueretan genero ikuspegia sartzea.

G3 neurria: Sail barruko jardueran genero ikuspegia sartzea.

G4 neurria: Estatistika eta azterlanetan genero ikuspegia sartzea.

G5 neurria: Emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua handitzea.

B. BERDINTASUN GAIETAN ESKU HARTZEKO ARDATZAK

I. ardatza: Balioen aldaketa eta emakumeen ahalduntze pertsonala, kolektiboa eta soziala.

1. programa: Balioak aldatzea.

1.1. estrategia: Balioen aldaketa sustatzea eta, horretarako, sexuaren arabera emandako genero estereotipoak eta rolak ezabatzea.

2. programa: Emakumeen ahalduntzea.

2.1. estrategia: Emakumeen laneratzea, lan baldintzak eta mailaz igotzeko aukerak hobetzea, talde eta egoera aniztasuna kontuan hartuta.

2.2. estrategia: Emakumeei autoestimua garatzen, genero kontzientzia hartzen eta beren autonomia garatzen laguntzea.

2.3. estrategia: Emakumeek kontsulta organoetan eta elkarte mugimenduan, orokorrean, parte har dezaten sustatzea.

II. ardatza: Gizarte antolaketa erantzunkidea

3. programa: Gizarte antolaketa erantzunkidea

3.1. estrategia: Erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika bultzatzea.

3.2. estrategia: Hirigintzako plangintzatik eta herritarrei zuzendutako zerbitzuetatik, kontziliazio erantzunkidea erraztea.

III. ardatza: Emakumeen aurkako indarkeriarekin errotik amaitzea.


4. programa: Sentsibilizazioa eta prebentzioa.

4.1. estrategia: Indarkeriarik gabeko portaera ereduak bultzatzea.


5. programa: Hautematea eta arreta.

5.1. estrategia: Portaera bortitzak garaiz hautematea eta horien gaineko koordinazioa areagotzea.

5.2. estrategia: Indarkeriaren biktima diren emakumeen babesa eta arreta osoa bermatzea.



Kontsulta koordinazioa



Genero ikuspegia sartzeko mailakako prozesua sustatu eta indartu NAHI DA.

Berdintasunaren aldeko gobernamendua hobetzeko NEURRIAK

Politika publikoek beren fase guztietan desberdintasunen prebentzioa eta gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzeko neurriak KONTUAN HARTZEKO.

TERMINOLOGIA BEREZIA

<p><i>GOBERNAMENDUA</i> Botere publikoek egiten duten esku hartzearen kalitatea, eraginkortasuna eta orientazio egokia, beren legitimitatearen oinarri direnak.</p>	<p><i>GENERO MAINSTREAMINGA</i> Prozesu politikoak antolatzea, hobetzea, garatzea eta ebaluatzea da; beraz, neurri politikoak hartzen parte hartzen duten eragileek genero berdintasunaren ikuspegia sartu behar dute politika guztietan, maila guztietan eta urrats guztietan.</p>
<p><i>GENERO IKUSPEGIA SARTZEA</i> Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea, eta, horretarako, ezberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduera zehatzak txertatzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan, eta horien plangintza, egikaritze eta ebaluazio fase guztietan.</p>	<p><i>GENEROAREN ERAGINA</i> Emakume eta gizonak kolektibo gisa diren egoeran proposamen batek izan dezakeen eragina.</p>
<p><i>ORDEZKARITZA OREKATUA</i> Sexu bakoitza talde batean dago ordezkaturata, behintzat kide guztien % 40an.</p>	<p><i>KOMUNIKAZIO INKLUSIBOA</i> Emakumeek eta gizonak gure gizarteari egiten dioten eta egin dioten ekarpena ikusarazten, errespetatzen eta aintzat hartzen duen komunikazioa, berdintasunezko gizartea eraikitzea sustatzen duena.</p>

Berdintasunaren aldeko gobernamendua hobetzeko NEURRIAK

G1. NEURRIA: Udalaren betebeharretan eta udalaz gaindiko eta sailen arteko koordinazioan genero ikuspegiaren integrazioan aurrera egitea.

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A1	<i>Eudelek eta Emakundek</i> sustatutako kanpaina eta sareetan parte hartzea: <i>Emakumeen Nazioarteko Eguna, Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna, Beldur Barik, Gizonduz ekimena, Berdinsarea.</i>	Zenbat kanpainatan parte hartu den. Zenbat saretan parte hartu den.	Alkateza. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A2	Inguruko beste udal batzuetako Berdintasun Arloak koordinatzeko prozesuak sistematizatzea.	Sistematizatutako prozesuen kopurua. Koordinatutako berdintasun arloen kopurua.	Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A3	Udalerrian lanean ari diren beste erakunde publiko batzuekin koordinazio prozesuak sistematizatzea.	Sistematizatutako prozesuen kopurua. Koordinatutako erakunde publikoen kopurua.	Berdintasuna. Osakidetza. Ikastetxeak.	✓	✓	✓	✓	✓
A4	Berdintasun Planaren jarraipena sailen arteko bileren gai zerrendan sartzea eta urteko ebaluaziorako galde sorta egiteko bilera zehatzen bat zehaztea.	Irizpide hori betetzen duten sailen arteko bileren %.	Berdintasuna	✓	✓	✓	✓	✓

Berdintasunaren aldeko gobernamendua hobetzeko NEURRIAK

G1. NEURRIA: Udalaren betebeharretan eta udalaz gaindiko eta sailen arteko koordinazioan genero ikuspegiaren integrazioan aurrera egitea.

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A5	Kontsulta eta partaidetza organoetan ordezkariak orekatua egon dadin sustatzea (batzordeak, kontseiluak...)	Parte hartzaile kopurua, batzorde edo kontseiluetan, generoaren arabera.	Alkatetza. Berdintasuna.	✓	✓	✓		
A6	Batzorde eta kontseiluen jardueretan genero ikuspegia sartzea.	Irizpide hori betetzen duten batzorde eta kontseiluen %.	Alkatetza. Sail guztiak. Arlo guztiak.			✓	✓	✓
A7	Kontsulta eta partaidetza organoetan ordezkariak orekatua egon dadila bermatzea (batzordeak, kontseiluak...)	Parte hartzaileen %, batzorde edo kontseiluetan, generoaren arabera.	Alkatetza. Sail guztiak. Arlo guztiak.				✓	✓

Berdintasunaren aldeko gobernamendua hobetzeko NEURRIAK

G1. NEURRIA: Udalaren betebeharretan eta udalaz gaindiko eta sailen arteko koordinazioan genero ikuspegiaren integrazioan aurrera egitea.

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A8	Berdintasunaren aldeko gobernua hobetzeko NEURRIAK Emakumeen elkarrekin eta beste gizarte eragile batzuekin koordinazio eta jarraipen ekintzak sistematizatzea	Koordinazio eta jarraipen ekintzen kopurua. Ekintzak zein gizarte eragile kopururekin egiten diren.	Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A9	Berdintasunaren arloko Udalaren jardunbide egokiak ezagutaraztea.	Jardunbide egokien berri emateko ekintza kopurua.	Alkatetza. Komunikazioa. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A10	Udaleko Berdintasun Arloa eta beste arlo batzuk koordinatzeko prozesuak sistematizatzea. (I. fasea)	Sistematizatutako koordinazio prozesuen kopurua.	Osasuna eta Droga mendekotasuna. Giza Eskubideak eta Kooperazioa. Hezkuntza, Kultura, Gazteria eta Kirolak. Euskara. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A11	Berdintasunaren inguruko arlo guztien arteko koordinazio prozesuak sistematizatzea.	Sistematizatutako koordinazio prozesuen kopurua. Koordinatutako arloen %	Berdintasuna. Arlo guztiak.			✓	✓	✓

G2. NEURRIA: Prestakuntza jardueretan genero ikuspegiaren integrazioan aurrera egitea

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A12	Talde politikoa berdintasunaren arloan prestatzea, berdintasunerako politiken eta neurrien garapenean lidergoari dagokionez postuak dituen zeregin bereziak kontuan hartuta.	Prestakuntza ekintzen kopurua. Karguaren zereginetara egokituta dagoen berdintasuneko prestakuntza duten pertsonen %	Berdintasuna.		✓		✓	
A13	Talde politikoa berdintasunaren arloan prestatzea, mailaz maila eta etengabe, eta postu bakoitzaren berariazko zereginak kontuan hartuta.	Taldeko ekintza kopurua. Banakako ekintza kopurua. Lanpostuaren zereginetara egokituta dagoen berdintasuneko prestakuntza duten pertsonen %.	Berdintasuna		✓		✓	
A14	Emakumeenganako indarkeriaren inguruko prestakuntza nahikoa bermatzea herritarrei arreta zuzena eskaintzen dieten langileei , langile teknikoa izan edo ez izan.	Irizpide hori betetzen duten sailen arteko bileren %.	Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓

G3. NEURRIA: Sail barruko jardueretan genero ikuspegiaren integrazioan aurrera egitea

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A15	Sail batzuetan planaren garapenaren arduradun bat esleitzea, bere eskumenen barruan jarduten duena.	Arduraduna esleituta duten sailen %.	Euskara. Hezkuntza, Kultura, Gazteria eta Kirolak. Gizarte Ongizatea, Berdintasuna, Kontsumoa, Osasuna eta Droga mendekotasuna, Giza Eskubideak eta Kooperazioa.	✓	✓	✓	✓	✓
A16	Sail guztietan planaren garapenaren arduradun bat dagoela bermatzea, bere eskumenen barruan jarduten duena.	Arduraduna esleituta duten sailen %.	Sail guztiak. Berdintasuna.		✓	✓	✓	✓

Berdintasunaren aldeko gobernamendua hobetzeko NEURRIAK

G3. NEURRIA: Prestakuntza jardueretan genero ikuspegiaren integrazioan aurrera egitea

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A17	Enplegu eskaintza publikoetan ekintza positiboko neurriak sartzea.	Eskaintza publikoen kopurua / Neurri kopurua	Alkatetza Sail eskudunak		✓	✓	✓	✓
A18	Zerbitzuen kontratazio publikoan gizarte eta berdintasun klausulak sartzea.	Irizpide hori betetzen duten zerbitzuen kontratazio publikoen %.	Alkatetza. Idazkaritza. Berdintasuna.		✓	✓	✓	✓
A20	Hizkera inklusiboa tresna gisa erabiltzeko sentsibilizatzea.	Irizpide hori betetzen duten ekintzen %.	Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A21	Komunikazioan modu eta eduki inklusiboak baliatzea.	Modu eta eduki inklusiboak dituzten dokumentu publikoen eta barnekoen %.	Komunikazioa. Gainerako arloak. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓

Berdintasunaren aldeko gobernarendua hobetzeko NEURRIAK
3. NEURRIA: Prestakuntza jardueretan genero ikuspegiaren integrazioan aurrera egitea

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A22	Diagnostiko, programa eta esku hartzeetan genero ikuspegia sartzea (I. fasea).	Irizpide hori betetzen duten programen %.	Osasuna eta Droga mendekotasuna. Giza Eskubideak eta Kooperazioa. Berdintasuna	✓	✓	✓	✓	✓
A23	Diagnostiko, programa eta esku hartzeetan genero ikuspegia sartzea. (II. fasea)	Irizpide hori betetzen duten diagnostiko, programa eta esku hartzeen %.	Hezkuntza, Kultura, Gazteria eta Kirolak. Osasuna eta Droga mendekotasuna. Giza Eskubideak eta Kooperazioa. Euskara. Berdintasuna.		✓	✓	✓	✓
A24	Sail eta arlo guztietako diagnostiko, programa eta esku hartzeetan genero ikuspegia sartzea (III. fasea).	Genero eragina gutxitzen duten diagnostiko, programa eta esku hartzeen %.	Alkatetza. Arlo guztiak. Berdintasuna.			✓	✓	✓
A25	Sail eta arlo guztietako aurrekontuetan genero ikuspegia sartzea, bai eta diagnostiko, programa eta esku hartzeetan ere.	Genero eragina gutxitzen duten diagnostiko, programa, esku hartze eta	Alkatetza. Arlo guztiak. Berdintasuna.				✓	✓



		aurrekontuen %.						
--	--	-----------------	--	--	--	--	--	--

Berdintasunaren aldeko gobernarendua hobetzeko NEURRIAK

G3. NEURRIA: Prestakuntza jardueretan genero ikuspegiaren integrazioan aurrera egitea

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A26	Gizarte eragileekin koordinatzeko prozesuetan genero ikuspegia sartzea. (I. fasea)	Koordinazio prozesuen kopurua. Parte hartzen duen gizarte eragileen kopurua.	Osasuna eta Droga mendekotasuna. Giza Eskubideak eta Kooperazioa. Berdintasuna	✓	✓	✓	✓	✓
A27	Gizarte eragileekin koordinatzeko prozesuetan genero ikuspegia sartzea. (II. fasea)	Koordinazio prozesuen kopurua. Parte hartzen duen gizarte eragileen kopurua.	Euskara. Hezkuntza, Kultura, Gazteria eta Kirolak. Osasuna eta Droga mendekotasuna. Giza Eskubideak eta Kooperazioa.		✓	✓	✓	✓
A28	Gizarte eragileekin koordinatzeko prozesuetan genero ikuspegia sartzea. III. fasea.	Koordinazio prozesuen kopurua. Parte hartzen duen gizarte eragileen kopurua.	Arlo guztiak. Berdintasuna.			✓	✓	✓
A29	Jarduketan genero eragina ebaluatzea.	Genero eragina ebaluatzen duten prozedura eta jarduketan %.	Arlo guztiak. Berdintasuna.					✓

Berdintasunaren aldeko gobernarendua hobetzeko NEURRIAK
G4. NEURRIA: Estatistika eta azterlanetan genero ikuspegia sartzea

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A30	Egiten diren datu bilketa eta espedienteetan. adin eta sexu aldagaiak sistematikoki sartzea, bai eta informazio tratamenduan eta udal mailan egiten diren analisi, diagnostiko eta azterlan guztietan ere.	Sexuaren arabera bereizitako datuen estatistiken %. Eskakizun hori betetzen duten analisi, diagnostiko eta azterlanen %.	Osasuna eta Droga mendekotasuna. Giza Eskubideak eta Kooperazioa. Hezkuntza, Kultura, Gazteria eta Kirolak. Euskara. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A31	Egiten diren datu bilketa eta espedienteetan. adin eta sexu aldagaiak sistematikoki sartzea, bai eta informazio tratamenduan eta udal mailan egiten diren analisi, diagnostiko eta azterlan guztietan ere.	Sexuaren arabera bereizitako datuen estatistiken %. Eskakizun hori betetzen duten analisi, diagnostiko eta azterlanen %.	Arlo guztiak.		✓	✓	✓	✓
A32	Diru laguntzak arautzen dituen udal ordenantzan zehaztapen bat sartzea, derrigorrean adierazi behar dela diru laguntzaren justifikazio memorian adinaren eta generoaren arabera bereizitako datu hauek: elkartutako	Irizpide hori kontuan hartuta ordenantza betetzen duten eskabideen %.	Alkatetza. Idazkaritza.		✓	✓	✓	✓



	pertsona kopurua, zuzendaritza batzordeko kide kopurua, diruz lagundutako jardueran parte hartzen duen pertsona kopurua.						
A33	Espedienteak hastea, alderdiak hala eskatuta, espedientea hasten duen pertsona fisikoaren filiazioarekin.	Irizpide horri jarraiki eginiko espedienteen %.	Arlo guztiak. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓

Berdintasunaren aldeko gobernarendua hobetzeko NEURRIAK

G5 NEURRIA: Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua handitzea.

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A34	Elkarte egiturarentzako diru laguntzen deialdietan mailaz maila berdintasun irizpideak sartzea, partaidetzari eta baliabideen eskuragarritasunari dagokienez.	Partaidetzan eta baliabideen eskuragarritasunean ordezkaritza orekatua duten elkarten %.	Arlo guztiak. Berdintasuna.			✓	✓	✓
A35	Epaitegi, epaimahai, kontsulta organo eta administrazioaren beste egitura eta parte hartzeko prozesu batzuetan ordezkaritza orekatua sustatzea.	Ordezkaritza orekatua duten epaitegi, epaimahai, egitura eta parte hartzeko prozesuen %.	Arlo guztiak. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓

Berdintasunaren aldeko gobernarendua hobetzeko NEURRIAK

G5 NEURRIA: Emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua handitzea.

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A36	Funtzio publikoari atxikitako lanpostuak genero ikuspegiarekin analizatzea: sartzeko baldintzak, egitekoa, kategoriak, lan karga, soldata...	Analisia egitea.	Idazkaritza. Langileak. Berdintasuna.			✓		
A37	Langile funtzionarioen kudeaketa neurriak genero ikuspegiarekin ezartzea.	Hartutako neurri kopurua.	Idazkaritza. Langileak. Berdintasuna.				✓	✓
A38	Kargu politikoak genero estereotipo tradizionalak gainditzen dituzten sailei esleitzea.	Generoaren arabera estereotipatu gabeko esleipena duten zinegotzi ordezkari titularren kopurua.	Alkatetza.	✓	✓	✓	✓	✓

I. ARDATZA: Balioen aldaketa eta emakumeen ahalduntze pertsonala, kolektiboa eta soziala

1. programa: Balioak aldatzea.
2. programa: Emakumeen ahalduntzea

Gizonen eta emakumeen arteko harreman pertsonal eta sozialetan boterea orekatu NAHI DA.

Emakumeen eta gizonen arteko boterearen banaketa zuzenagoa eta bidezkoagoa den eta gizonentzat eta emakumeentzat onuragarria den gizartea ERAIKITZEKO.

TERMINOLOGIA BEREZIA

AHALDUNTZEA

Pertsonak bere bizitzari eragiten dioten baliabide eta erabakiei buruzko autoritatea eta boterea areagotzea.

BALIOAK ALDATZEA

Gizarte rolen sexu bereizketak sustatzen dituen sinesmen, portaera eta jokabideak aldatzea eta gizarte estereotipatuan emakumea edo gizona izatea zer den ulertzea.

HERRITARTASUN AKTIBOA

Gizarte baten eremu publikoan parte hartzea eta inplikatzeta.

AUTONOMIA PERTSONALA

Berezko balioa eta autoestimua onartzea.

XEDE DEN KOLEKTIBOA:

Esku hartze baten eraginkortasuna maximizatzeko ezaugarri egokiak dituen pertsona taldea.

BATERAKO HEZKUNTZA

Sexua edozein dela ere, espazio bera partekatzen duten pertsonen hezkuntza integrala.

1. PROGRAMA: Balioak aldatzea.

1.1. ESTRATEGIA: Balioen aldaketa sustatzea, pertsonei sexuaren arabera emandako genero estereotipoak eta rolak ezabatuz.

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A39	Hautzaroan baterako hezkuntzarako udal ekimenak sustatzea.	Irizpide hori betetzen duten ekimenen %.	Hezkuntza. Berdintasuna. Ikastetxeak.	✓	✓	✓	✓	✓
A40	Gazteentzako afektu eta sexu hezkuntzako lantegiak.	Irizpide hori betetzen duten lantegien %. Adinaren eta generoaren araberrako parte hartzaile kopurua.	Hezkuntza. Gazteria. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A41	Emakume eta gizonen artean berdintasun printzipioa giza eskubide delako uste osoa zabaltzea, herritar ororentzako informazio kanpainen bidez (ostalaritzarako eta merkataritzarako euskarrien erabilera: ontziak, mahai oihalak, ahozapiak...)	Irizpide hori betetzen duten kanpainen %.	Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A42	Xede diren kolektiboak (familiak, gazteak, kirolak) emakume eta gizonen arteko berdintasunaren balioaz sentsibilizatzea.	Irizpide hori betetzen duten sentsibilizazio ekintzen %.	Hezkuntza. Gazteria. Kirolak. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓

1. PROGRAMA: Balioak aldatzea.

1.1. ESTRATEGIA: Balioak alda daitezen sustatzea, pertsonei sexuaren arabera emandako genero estereotipoak eta rolak ezabatuz.

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A43	Berdintasun Kontseiluan gizarte eragileen parte hartze aktiboa areagotzea.	Irizpide hori betetzen duten gizarte eragileen %.	Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A44	Berdintasunaren alde lan egiteko talde mistoak (gizonak eta emakumeak) sor daitezen sustatzea.	Irizpide hori betetzen duten lan taldeen %. Taldekako parte hartzaile kopurua, generoaren arabera.	Arlo guztiak. Berdintasuna.			✓	✓	✓
A45	Emakumeek udalerrriaren lehenari eta orainari eginiko ekarpenen berri ematea.	Ekarpenen berri emateko ekintza kopurua.	Arlo guztiak. Berdintasuna				✓	
A46	Komunikabideetan eta sare sozialetan sexismoari buruzko hausnarketa espazioak sortzea.	Hausnartzeko espazio kopurua. Adinaren, generoaren eta kolektiboaren araberrako parte hartzaile kopurua.	Arlo guztiak. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A47	Herritarren artean kultur produktu inklusiboak sor daitezen sustatzea: bertsolaritza, musika, arte ederrak...	Irizpide hori betetzen duten kultur produktuen %. Adinaren, generoaren eta kolektiboaren araberrako parte hartzaile kopurua.	Arlo guztiak. Berdintasuna	✓	✓	✓	✓	✓

1. PROGRAMA: Balioak aldatzea.

1.1. ESTRATEGIA: Balioak alda daitezen sustatzea, pertsonen sexuaren arabera emandako genero estereotipoak eta rola ezabatuz.

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A48	Elkarte egituraren baterako parte hartzea ekarriko duten jarduerak sustatzea. (I. fasea)	Irizpide hori betetzen duten jardueren %. Adinaren, generoaren eta kolektiboaren arabera parte hartzaile kopurua.	Osasuna eta Droga mendekotasuna. Giza Eskubideak eta Kooperazioa. Hezkuntza, Kultura, Gazteria eta Kirolak. Euskara. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A49	Elkarte egiturak batera parte hartzeko jarduerak sustatzea. (II. fasea)	Irizpide hori betetzen duten jardueren %. Adinaren, generoaren eta kolektiboaren arabera parte hartzaile kopurua.	Arlo guztiak. Berdintasuna.			✓	✓	✓
A50	Jai batzordeetan ordezkariak orekatua sustatzea.	Jai batzordeetako kideen %, generoaren arabera.	Arlo guztiak. Berdintasuna	✓	✓	✓	✓	✓
A51	Jaietako programa eta jardueretan genero ikuspegia sartzea.	Genero ikuspegia duten jaietako programa eta jardueren %.	Arlo guztiak. Berdintasuna		✓	✓	✓	✓

1. PROGRAMA: Balioak aldatzea.

1.1. ESTRATEGIA: Balioak alda daitezen sustatzea, pertsonen sexuaren arabera emandako genero estereotipoak eta rola ezabatuz.

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A52	Ordezkaritza gutxien duen generoak jarduerak egin ditzen sustatzea.	Parte hartzaileen %, generoaren arabera.	Kultura Gazteria Kirolak Euskara Berdintasuna	✓	✓	✓	✓	✓
453	Kirol mistoa sustatzen duten kirol klubak sor daitezen sustatzea.	Irizpide hori betetzen duten klubuen %.	Kirolak. Berdintasuna.		✓	✓	✓	✓
A54	Bidegorri baliabidearen erabilera sustatzea eta, horretarako, familiako kirola eta banakako kirol mistoa bultzatzea.	Irizpide hori betetzen duten ekintzen kopurua.	Kirolak. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A55	Ikastetxeetako ate irekien kirol jardunaldietan, baterako hezkuntzaren irizpideak bultzatzea.	Irizpide hori betetzen duten jardunaldien %.	Hezkuntza. Kirolak. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓

2. PROGRAMA: Emakumeen ahalduntzea.

2.1. ESTRATEGIA: Emakumeen laneratzea, lan baldintzak eta mailaz igotzeko aukerak hobetzea, talde eta egoera aniztasuna kontuan hartuta.

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A56	Genero ikuspegia kontuan hartzen duen enplegurako prestakuntza sustatzea.	Irizpide hori betetzen duten esku hartzeen %. Adinaren, generoaren eta kolektiboaren arabera parte hartzaile kopurua.	Enplegua. Berdintasuna.			✓	✓	✓
A57	Aholkularitza profesional inklusiboa sistematizatzea.	Irizpide hori betetzen duten aholkularitzen %. Adinaren, generoaren eta kolektiboaren arabera parte hartzaile kopurua.	Enplegua. Berdintasuna.			✓	✓	✓
A58	Inguruko enpresen berdintasunaren arloko jardunbide egokiak sustatzea eta horien berri ematea.	Irizpide hori betetzen duten ekintzen %.	Enplegua. Berdintasuna.			✓	✓	✓
A59	Genero joerarik ez duten ibilbide profesionalen zabalkundea sustatzea.	Irizpide hori betetzen duten zabalkunde ekintzen kopurua.	Hezkuntza. Enplegua. Berdintasuna.		✓	✓	✓	✓

2. PROGRAMA: Emakumeen ahalduntzea.

2.1. ESTRATEGIA: Emakumeen laneratzea, lan baldintzak eta mailaz igotzeko aukerak hobetzea, talde eta egoera aniztasuna kontuan hartuta.

EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA					
			2014 2015	2016	2017	2018	2019	
A60	Laneratze maila handia duten eta ordezkartza gutxi duten sektoreetan lan egiteko interesa duten emakumeak identifikatzea eta beren prestakuntza sustatzea.	Irizpide hori betetzen duen emakume kopurua. Irizpide hori betetzen duten prestakuntza ekintzen kopurua.	Enplegua. Berdintasuna.			✓	✓	✓
A61	Genero ikuspegia duen ekintzailatza sustatzea.	Jardueren arabera sortutako enpresa kopurua, zuzendaritza karguen eta generoaren arabera bereizita.	Enplegua. Berdintasuna.			✓	✓	✓
A62	<i>Nekazaritzako eta abeltzaintzako azokan parte hartze aktiboa sustatzea.</i>	Jardueretako parte hartzaile kopurua, generoaren arabera.	Arlo guztiak. Berdintasuna.			✓	✓	✓

2. PROGRAMA: Emakumeen ahalduntzea.

2.2. ESTRATEGIA: Emakumeei autoestimua garatzen, genero kontzientzia hartzen eta beren autonomia garatzen laguntzea.

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A63	<i>Topagune – World Kafea</i> genero ikuspegiarekin.	<p>Irizpide hori betetzen duen jarduera kopurua.</p> <p>Landutako gai kopurua.</p> <p>Adinaren, generoaren eta kolektiboaren araberrako parte hartzaile kopurua.</p> <p>Parte hartzen duen gizarte eragileen kopurua.</p>	Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A64	Emakumeen ahalduntzerako kultur eta hausnarketa espazioak sistematizatzea, hainbat interesetako pertsonen parte hartzea sustatzeko.	Irizpide hori betetzen duten espazioen %.	Kultura. Gazteria. Berdintasuna.		✓	✓	✓	✓

2. PROGRAMA: Emakumeen ahalduntzea.

2.3. ESTRATEGIA: Emakumeek kontsulta organoetan eta elkarte mugimenduan, orokorrean, parte har dezaten sustatzea.

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A65	Kontseiluetan emakumeen eta emakume elkarten parte hartzea sustatzea.	Kontseiluetako parte hartzaile kopurua, generoaren arabera. Ordezkatutako emakume elkarten kopurua.	Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A66	Elkarteetako kideentzako komunikazio tekniken eta gizarte trebetasunen lantegia (hizkera inklusiboa, jendaurrean hitz egitea...)	Emakume parte hartzaileen %.	Berdintasuna.		✓		✓	
A67	Emakumeen artean ahizpatasuna sustatzen duten ekimenak bultzatzea.	Irizpide hori betetzen duten ekintzen %.	Berdintasuna.		✓	✓	✓	✓

2. PROGRAMA: Emakumeen ahalduntzea.

2.3. ESTRATEGIA: Emakumeek kontsulta organoetan eta elkarte mugimenduan, orokorrean, parte har dezaten sustatzea.

EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
			2014 2015	2016	2017	2018	2019
A68	Kontseiluetan ordezkaritza orekatua duten elkarten parte hartzea sustatzea.	Irizpide hori betetzen duten elkarten %.		✓	✓	✓	✓
A69	Genero ikuspegia duen udal elkarte egiturari buruzko azterlana, antolaketa ereduari eta erabakiak hartzeari erreparatuta, bereziki.	Azterketa egitea.	✓	✓			

II. ARDATZA: Gizarte antolaketa erantzunkidea:

Gizonak, erakundeak eta gizartea, oro har, lan erreproduktiboan inplikarazi NAHI DIRA.

3. PROGRAMA: Gizarte antolaketa erantzunkidea:

Gizarte, familia, lan eta norberaren espazioen ondoriozko beharrak eta erantzukizunak OREKATZEKO.

TERMINOLOGIA BEREZIA

<p><i>KONTZILIAZIOA</i></p> <p>Hainbat eremuz arduratzeko beharra: norberarena, familiakoa, gizartekoa eta lanekoa.</p>	<p><i>ERANTZUNKIDETASUNA</i></p> <p>Emakume eta gizonen erantzukizuna eremu publiko eta pribatuetan. Estatuaren, merkatuaren eta gizartearen egitekoak ere aipatu behar dira.</p>
<p><i>DENBORAREN ERABILERAK</i></p> <p>Pertsona batek egiten dituen jardueren arteko denboraren banaketa.</p>	<p><i>LAN ERREPRODUKTIBOA</i></p> <p>Gizarte batean bizitza baldintzei eustera bideratutako lana, bereziki etxeko lana eta pertsonak zaintzekoa.</p>
<p><i>ETEN DIGITALA</i></p> <p>Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabileran emakume eta gizonen artean dagoen diferentzia.</p>	

3. PROGRAMA.- *Gizarte antolaketa erantzunkidea*

3.1. ESTRATEGIA: Erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika bultzatzea.

EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA					
			2014 2015	2016	2017	2018	2019	
A70	Norberaren zaintza eta jokabide arriskutsuen prebentzioa sustatzeko genero ikuspegia duten lantegiak (droga mendekotasunak, bide segurtasuna).	Irizpide hori betetzen duten lantegien %. Generoaren eta adinaren araberako parte hartzaileen %.	Udaltzaingoa. Osasuna eta Droga mendekotasuna. Berdintasuna.		✓		✓	
A71	Amek eta aitek baterako hezkuntzari buruz hausnartzeko espazioak sustatzea.	Irizpide hori betetzen duen espazio kopurua. Generoaren eta adinaren araberako parte hartzaileen %.	Hezkuntza. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A72	Etxean gizon eta emakumeen arteko erantzunkidetasunaren inguruan sentsibilizatzea.	Irizpide hori betetzen duten ekintzen %. Generoaren eta adinaren araberako parte hartzaileen %.	Gazteria. Berdintasuna.		✓	✓		



Ortuella

3. PROGRAMA.- Gizarte antolaketa erantzunkidea

3.1. ESTRATEGIA: Erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika bultzatzea.

			EZARPENA EBALUAZIOA					
3. PROGRAMA.- Gizarte antolaketa erantzunkidea EKINTZA 3.1. ESTRATEGIA: Erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika bultzatzea.			2014 2015	2016	2017	2018	2019	
A73	Zaintzaren balio sozio-ekonomikoaren inguruan sentsibilizatzea.	ADIERAZLEAK Irizpide hori betetzen duten ekintzen %. Ezarritako erantzunkidetasun neurriak dituen enpresa kopurua.	ARDURADUNAK			✓		✓
A74	Gizonen artean kontziliaziorako lanaldi murrizketak sustatzea.	Irizpide hori betetzen duten ekintzen %. Lanaldi murrizketari heltzen dioten gizonen %.	Idazkaritza. Enplegua. Berdintasuna.		✓	✓	✓	✓
A75	Udal eskumenen barruan, udalerriko enpresa egituraren artean kontziliazioa errazten duten lan baldintzak sustatzea: espazioen eta denboren egokitzapena...	Irizpide hori betetzen duten ekintzen %.	Enplegua. Hirigintza. Berdintasuna.			✓	✓	✓
A76	Kontsumo iraunkorrean eta ez sexistan oinarritzen den publizitatearekin konprometituta dauden enpresa ekimenak sustatzea eta bultzatzea.	Irizpide hori betetzen duten ekintzen %. Irizpide hori betetzen duten publizitate produktuen %.	Enplegua. Berdintasuna.			✓	✓	✓



	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A77	Udaleko langileen artean kontziliazioa errazten duten lan baldintzak bermatzea.	Irizpide hori betetzen duen neurri kopurua.	Idazkaritza. Berdintasuna.			✓	✓	✓
A78	Belaunaldien arteko partaidetza jardueren bidez erantzunkidetasuna sustatzea. (I. fasea)	Irizpide hori betetzen duen jarduera kopurua.	Osasuna eta Droga mendekotasuna. Giza Eskubideak eta Kooperazioa. Hezkuntza, Kultura, Gazteria eta Kirolak. Euskara. Berdintasuna.		✓	✓	✓	✓
A79	Belaunaldien arteko partaidetza jardueren bidez erantzunkidetasuna sustatzea. (II. fasea)	Irizpide hori betetzen duen jarduera kopurua.	Arlo guztiak. Berdintasuna.			✓	✓	✓

3. PROGRAMA.- *Gizarte antolaketa erantzunkidea*

3.1. ESTRATEGIA: Erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika bultzatzea.

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A80	Emakume eta gizonen interes eta beharrei erantzuten dieten aisia eta astialdiko espazioak eta jarduerak sustatzea.	Irizpide hori betetzen duten ekintzen %. Parte hartzen duten kolektiboen kopurua.	Hirigintza. Kultura, Gazteria eta Kirola. Euskara. Gizarte Ongizatea. Berdintasuna.			✓	✓	✓
A81	Emakumeek eta gizonek udalerrriaren historia kolektiboari egin dioten ekarpena modu orekatuan aitortzea: eskulturak, horma irudiak, kaleen izenak, plazak...	Aitorpena duen kolektibo/pertsona kopurua, generoaren arabera.	Osasuna eta Droga mendekotasuna. Giza Eskubideak eta Kooperazioa. Hirigintza. Hezkuntza, Kultura, Gazteria eta Kirolak. Euskara. Berdintasuna.			✓	✓	✓

3. PROGRAMA.- Gizarte antolaketa erantzunkidea

3.2. ESTRATEGIA: Hirigintza plangintzak eta herritarrentzako zerbitzuak kontziliazio arduratsua erraztea.

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A82	Ordutegien gaineko adostasunaren eta/edo baliabideen aurreikuspenaren bidez, bilera eta jardueretara bertaratzeko erraztasunak ematea, kontziliaziorako.	Irizpide hori betetzen duten jardueren %.	Arlo guztiak. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A83	Euskalduntzea sustatzea kontziliazio beharrak kontuan hartuta (ordutegiak, lekuak, erritmoak...).	Irizpide hori betetzen duten ekintzen %. Parte hartzaileen %, generoaren arabera.	Euskara. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A84	Hirigintza plangintzan kontziliazio eta erantzunkidetasun irizpideak sartzea: hiri debekatuaren mapa, arkitektura oztopoak,	Irizpide hori betetzen duten ekintzen %.	Hirigintza. Berdintasuna.			✓	✓	✓
A85	Irigarritasun egokia duten lekuetan egiten diren jarduerak sustatzea bereziki. OKE, Nosedal etxe soziala, atletismo pista.	Irizpide hori betetzen duten lekuetan egindako jardueren %.	Arlo guztiak. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓

III. ardatza: Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea

Epe laburrera, ertainera eta luzera emakumeen kontrako indarkeriaren gaiari ekitea LORTU NAHI DA.

4. PROGRAMA: Sentsibilizazioa eta prebentzioa

5. PROGRAMA: Hautematea eta arreta

Giza eskubideak larriki urratzen dituen indarkeria horrekin errotik AMAITZEKO.

TERMINOLOGIA BEREZIA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekarri ahal badio, bai eta ekintza horien mehatxuak, derrigortzeak eta eremu publikoan nahiz pribatuan askatasuna arbitrarioki kentzea ere.

4. PROGRAMA- Sentsibilizazioa eta prebentzioa

4.1. ESTRATEGIA: Indarkeriarik gabeko portaera ereduak bultzatzea.

EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA					
			2014 2015	2016	2017	2018	2019	
A86	Gaztegunean, ludoteketan, eta abar berdintasunezko jokabide ereduak sustatzea.	Irizpide hori betetzen duen jarduera kopurua.	Hezkuntza. Gazteria. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A87	Berdintasunezko jokabidearen dekalogoia egitea batzorde eta kontseiluetan parte hartzen duten pertsona guztien artean.	<i>Dekalogoia</i> egitea.	Arlo guztiak. Berdintasuna.			✓		
A88	Berdintasunezko jokabidearen dekalogoia herritarren artean banatzea eta publikoki erakustea zein erakundek, taldek (kirol, kultura...), eragilek eta banakako pertsonak atxikitzen zaizkion.	<i>Dekalogoia</i> zabaltzea.	Arlo guztiak. Berdintasuna.			✓		
A89	Berdintasunezko jokabidearen barometroa: Udalaren barneko bilera bakoitzean eta atxikitako eragileek parte hartzen duten bilera bakoitzean dekalogoia zenbatean betetzen den adieraztea.	<i>Dekalogoaren</i> betetze maila jasotzen den bileren %.	Arlo guztiak. Berdintasuna.			✓	✓	✓

5. PROGRAMA- Hautematea eta arreta

5.1. ESTRATEGIA: Portaera bortitzak garaiz hautematea eta horien gaineko koordinazioa areagotzea.

EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA					
			2014 2015	2016	2017	2018	2019	
A90	Jokabide bortitzen kasuen espedienteen jarraipena sistematizatzea, itxi arte.	Irizpide hori betetzen duten espedienteen %.	Udaltzaingoa Hezkuntza. Gazteria Gizarte Ongizatea. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A91	Xede diren kolektiboak sentsibilizatzea, jokabide sexistak identifikatzeko.		Gazteria. Kultura. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓

5. PROGRAMA- Hautematea eta arreta

5.2. ESTRATEGIA: Indarkeriaren biktima diren emakumeen babesa eta arreta osoa bermatzea.

	EKINTZA	ADIERAZLEAK	ARDURADUNAK	EZARPENA EBALUAZIOA				
				2014 2015	2016	2017	2018	2019
A92	Indarkeria jasaten duten emakumeei arreta psikologikoa bermatzea	Arreta psikologikoko zerbitzua. Erabiltzaileen %.	Gizarte Ongizatea. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A93	Indarkeria jasaten duten emakumeei arreta juridikoa bermatzea	Arreta juridikoko zerbitzua. Erabiltzaileen %.	Gizarte Ongizatea. Udaleko Polizia. Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A94	Genero indarkeriaren egoeretan esku hartzeko protokoloa erabiltzen eta eguneratzen dela ziurtatzea.	Protokoloa betetzen duten esku hartzeen %. Protokoloaren eguneratze maila.	Berdintasuna.	✓	✓	✓	✓	✓
A95	Emakumeenganako indarkeria kasuetan ofizioz jarduteko aukera baliostea, Bozera maileen Batzordeak eta/edo udalaren osoko bilkurak egoki irizten diotenean eta baliabide ekonomikoak dituztenentzat.	Irizpide hori betetzen duen jarduketako kopurua.	Alkatetza.	✓	✓	✓	✓	✓

EBALUAZIOA

II. Planaren ebaluazioa ekintzetan oinarritzen den etengabeko ebaluazio gisa hartzen da. Etengabeko ebaluazio horrek, planifikatu denaren arabera, eguneroko egitekoaren kontrol osoaren bostaldi jasotzen ditu: 2014tik 2015era, 2014tik 2016ra, 2014tik 2017ra eta 2014tik 2018ra eta 2014tik 2019ra (**urteko plangintza, gauzatzeko aurrekontuarekin**).

Metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa da. Kuantitatiboa adierazleen analisisian oinarritzen da. Kualitatiboki, hausnartu egingo da ekintzaren ezarpenak neurriaren edo programaren eta estrategiaren *zer eta zertarako* galderei erantzun ote dien.

Horretarako, jarduera bakoitzaren datuak emateko fitxa bat proposatzen da. Tresna horrek eguneroko egitekoa ateratzen laguntzen du.

Egiten diren ekintzen koordinazio eta ebaluazio organoa **Berdintasun Batzordea izango da, eta talde eragile gisa jardungo du**, bere funtzionamendurako araudiaren arabera.

Horretarako, urtean behin helburu horrekin batuko diren udal arloen parte hartzea izango du.

Berdintasunerako tokiko organoa Berdintasun Saila eta beronen teknikari arduraduna izango da. Aipatutako pertsonak berdintasunaren gainean heziketa eta esperientzia izango du, nahitaezkoa planaren gauzatze eraginkorra bermatzeko.

JARDUERAREN EBALUAZIO FITXA				
JARDUERA				
EKINTZAK				
NEURRIAK/ESTRATEGIAK				
GOBERNAMENDUA / ARDATZAK - PROGRAMAK				
	II. PLANA - DISEINUA		II. PLANA - EZARPENA	
ARDURADUNAK				
GAUZATZEKO EPEA				
AURREKONTUA				
PARTE HARTZEA	Emakumeak, adinaren arabera	Gizonak, adinaren arabera	Emakumeak, adinaren arabera	Gizonak, adinaren arabera
EBALUAZIO Kuantitatiboa	ADIERAZLEAK			
EBALUAZIO KUALITATIBOA	GOBERNAMENDUA EDO ARDATZAK (ZER ETA ZERTARAKO) NEURRIAK EDO ESTRATEGIAK EKINTZAK JARDUERA (HELBURU ZEHATZAK)			
BALORAZIOA				
OHARRAK				



Ortuella



2014-2015EKO PLANA

1. **HELBURUA:** Ekintza Positiboko I. Planaren ebaluazioa egitea, gaur egungo egoeraren diagnostikoa egitea eta **ORTUELLA UDALERRIKO EMAKUME ETA GIZONEN BERTINTASUNERAKO II. PLANA** egitea.

JARDUERAK:

- Aurkezpen ekitaldia egitea eta II. Plana martxan jartzea.
- Ortuellako herritarren artean plan hori egingo dela zabaltzea, bai eta aurkezpena eta martxan jartzea ere.
- Udal sail bakoitzeko langile arduradunak esleitzea.

2. **HELBURUA:** Emakumeei lege, gizarte, hezkuntza, kultura, osasun, eta bestelako kontuen inguruan dauden baliabideen berri ematea, eta horiek eskuratzeko erraztasunak ematea, beren eskarien arabera.

JARDUERAK:

- Emakumeei informazioa, orientazioa eta laguntza teknikoak emateko zerbitzua.
- **BERDINTASUN BATZORDEA**, udal mailako parte hartze organo bezala eta planaren jarraipen eta ebaluazioaren ekipo eragile bezala.
- **LEGE AHOLKULARITZA ZERBITZUA**

3. **HELBURUA:** Hausnarketarako eta emakumeen ahalduntzerako espazioak sor daitezen sustatzea.

JARDUERAK:

- **MARTXOAREN 8KO JARDUERAK**
- **GENEROAREN INGURUKO TOPALEKUA: WORLD KAFAA.**

4. **HELBURUA:** Emakumeen parte hartzea sustatzea elkarte egituran, eta baliabideak ematea (prestakuntza, espazio fisikoak, bilerakoak) eta horiek ezagutzera ematea.

JARDUERAK:

- UDALERRIKO EMAKUMEEN ELKARTEENTZAKO **DIRU LAGUNTZAK** tramitatzea eta onartzea.
- Elkarteen JARDUERA JAKIN BATZUEI LAGUNTZA EMATEA: hitzaldiak, zenbait ekitaldi, irteerak, etab.
- "**ESKULANAK BAINO... ASKOZ GEHIAGO**" **ERAKUSKETA**; udalerriko emakumeen elkarteek egindako lanak.

5. **HELBURUA:** Udalerriko emakume guztien gizarte inklusioa sustatzea, harremanen espazioetan, beraientzat bereziki diseinatuta.

JARDUERAK:

- **DESABANTAILA SOZIALEAN DAUDEN EMAKUMEENTZAKO PROGRAMA; LANKUME ELKARTEA.**

6. **HELBURUA:** Eskola elkartearen sexuen arteko aukera berdintasuneko printzipioan eta baterako hezkuntzan sentsibilizatzea.

JARDUERAK:

- Eskola elkartearentzako **baterako hezkuntzari** buruzko mintegia; ikasgelan landu ahal izateko materialak eta tresnak erraztea.
- "Hezkidetza – baterako hezkuntza plana" egiten laguntzea.

7. **HELBURUA:** Udalaren komunikazioan hizkera inklusiboaren erabilera tresna gisa finkatzea, bai kanpora begira, bai barrura begira.

- Udalaren softwarean genero zuzentzaile tresnaren bat ezartzea.

8. **HELBURUA:** Emakumeenganako indarkeriarekin errotik amaitzeko behararekin sentsibilizatzea herritarrak eta, horretarako, biktimak babesteko eta horiei arreta emateko neurriak eta baliabideak antolatzea.
- **AZAROAREN 25ERAKO PROGRAMA,** Eudelek eta Emakundek sustatutako kanpaina eta sareetan parte hartzeko (**Beldur Barik**)
 - Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei **arreta emateko protokoloaren** jarraipena egitea.
 - Udalean herritarrei zuzeneko arreta emateko dauden langileei prestakuntza ematea.
9. **HELBURUA:** Ekintza horietan beste udalerrri eta udalaz gaindiko beste erakunde batzuekin lankidetzan jardutea eta koordinatzea.

JARDUERAK:

- **BERDINSAREA** - Indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko euskal udalerrien SAREAN EGOTEA
- Langile teknikoan etengabeko prestakuntza, topaketa, jardunaldi eta lan saioetan parte hartuz.

2014ko aurrekontua: 28.602,88€
2015eko aurrekontua: 28.602,88€



Ortuella